

## **1993ko OTSAILAREN 10eko BILKURA NAGUSIA**

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamahiruko otsailaren hamarrean, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Belen Zabala Olano; Udalkideak: Jose Antonio Mintegi Arrate, Julian Zubeldia Aierbe, Mikel Zelaia Ezenarro, Castor Olaetxea Garaikoetxea, Ramon Bengoetxea Altuna eta Iñigo Arreseigor Bengoetxea; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

### **AURREKO AKTAREN ONARPENA:**

Idazkariak, aurreko saioen aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

### **LIZARTZAKO PLANEAMENDUKO U-1 SEKTORE INDUSTRIALEKO ORDENAZIOAREN PLAN PARTZIALAREN AURRERAPENAREN ONARPENA**

Lizartzako Udalak sustatutako, eta Planaren Ekipo Erredaktatzaileak aurkeztutako, Lizartzako U-1 Sektore Industrialeko Ordenazioaren Plan Partzialaren Aurrerapena aztertuz gero, 7/85 Udal Erregimenari buruzko Oinarri Legearen 47.3 i. artikuluko quorumarekin, Plan Partzialaren Aurrerapena onartu eta jendaurrean hilabeteko epean jartzea, aho batez onartu da.

### **LANBIDE HASTAPENENKO TALLERRAK**

Alkateak hitza harturik, zera dio:

Beste urteetan bezelaxe, Lanbide Hastapeneko 93. ikasturtea bideratu da, eta aurten herri hontatik 2 ikaslek eman dute izena:

AITOR OLAETXEA GOIKOETXEA  
MIKEL ARDIBIDE LULOAGA

Aurrekontuari dagokionez berriz, Eusko Jaurlaritzak oraindik ere 1.993

ikasturteari dagokion laguntza jakinerazi ez duenez, ikasle bakoitzak, 200.000,- peztako kostua izango du.

Guzti honengatik, zera proposatzen da:

Ikasle hoiien kostua Udalaren gain hartzea, eta aldi berean, izena eman duten bi ikasle hoiei, erabaki honen berri ematea, ikasturtearen amaieran, Udalaren aurrean, asistentzi justifikatzailea aurkeztu beharko dutela jakineraztea.

Proposamena, aho batez onartu da.

#### ERROLDA BERRIKUNTZA

Idazkaria, hitza harturik, 1.993ko Urtarrilaren 1era eginiko Biztanleen Udal Erroldaren Berrikuntza aurkeztu du, eta honela gelditzen da:

#### Guztira Gizonezkoak Emakumezkoak

1.992-01-01ra Eskubidedun			
Biztanlegoa	696	370	326
1.992-01-01etik 1.993-01-01ra Altak	12	9	3
1.992-01-01etik 1.993-01-01ra Bajak	13	9	4
1.993-01-01ra Eskubidedun			
Biztanlegoa	695	370	325

=====

1.993ko Urtarrilaren 1era eginiko Biztanleen Udal Erroldaren Berrikuntza, aho batez onartu da.

#### IBERDROLA:

Energia salmentaren fakturapenei dagokion Prezio Publikorako, Udalerri honetan 1.992 urtean indar elektrikoen fakturapenean, Iberdrolak aurkeztu duen zinezko aitortpenaren berri eman da.

1.992 urteko fakturazioa 31.271.162,- pezta izan zen, eta Udalak onartutako araudiaren arabera, 1,5%eko tasa ezarri behar zaio.

Horren arabera, Udaleko Kutxan 469.067,- pezta sartu beharko ditu, Iberdrolak.

Zerga likidazio hori, aho batez onartu da.

#### INTSALUS - PLAN PARTZIALA:

Hirigintza Batzordeko partaidea den, Julian Zubeldia Aierbe Udalkideak, Intsalusko Ura, S.A.k aurkeztutako Industrailerako Plan Partzialaren berri eman du.

Lehendabidizi, almagazenteko pabelloia egiteko proiektua aurkeztu zuen. Udalak onartuta dituen Laguntzazko Arauen arabera, zonalde honetan ezer egitekotan, Plan Partziala osatu behar da.

Hori jakinerazi ondoren, Intsalusek, Plan Partziala aurkeztu zuen, Arkitektoak eta Abokatuak aztertu eta eginiko txostenaren arabera, Planean hutsune haundiak ikusten ziren eta itzuli egin zitzairen, akats hoiak konpontzeko eskatuaz.

Horren arabera, Agiri osagarri batzuk aurkeztu zituzten, baina oraindik ez ziren nahikoak.

Agiri guzti hoierekin, Diputazioarekin bilera bat egin zen, puntu batzu argitu eta beraiek zer eritzi dituzten jakin ahal izateko.

Plan Partzial horren bidez, Intsalusek, zonalde horretan, gune berdea utzi

behar du eta, inguru hori oso txikia denez, benetako arazoak sortzen zaizkio. Horren ordez, eta arazoari irtenbide bat bilatzeko, errekaen beste aldeko herri bidea konpontzea eskatu ahal izango litzaioke.

Baita ere, zonaldeko aprobetxamenduaren 15% Udalarentzat da. Bertan, gune hori izateak, Udalari ez dio inolako mesederik egiten eta ordez, Intsalus kaltetzen du. Horregaitik, Intsalusekin negoziatu behar da, aprobetxamendu horren ordez, balorazioak egin ondoren, plazaren atzekaldean duen terrenoa, Udalari ematea.

Gai honi buruz herrian atera diren kontuak direla eta, esan beharra dagoela, Udalak ez duela inolako eragozpen eta oztoporik jarri, Plana hori aurrera ateratzeko eta atzeratu baldin bada, gehien bat, Intsalus beraren errua izan dela, agiriak behar bezala ez aurkezteagatik. Udalaren nahia, Plan hau lehen bait lehen martxan jartzea dela.

Emandako informazio guztiaren ondoren eta inork eragozpenik jartzen ez duenez, U-2 Industrialderako Intsalusko Urak, S.A.k aurkeztutako Plan Partzialari, lehen onarpena ematea, aho batez onartu da.

#### KREDITUZKO KONTU KORRONTEA:

1.993 urterako Aurrekontu Orokorrak, Foru Aldundiak onartzeke dituenek, eta Udal honek, Udaletxeko obren ziurtagiriei aurre egin behar dienez, Alkateak, Euskadiko Kutxarekin 15.000.000,- pezetatako Kredituzko Kontu Korronte bat ateratzea proposatu du. Interesa, egunean dagoen interes tasa izango du, hau da:  $MIBOR\ 13,8 + 1\% = 14,80\%$ . Interesak, Kontu Korronte hortatik gastatzen denaren arabera bakarrik ordaintzen dira.

Alkateari ahalmenak ematea, behar diren agiriak sinatzeko.

Proposamena, aho batez onartu da.

#### BAKE EPAILEAREN IZENDAPENA:

Aurreko Bilkuran hitzegindakoaren arabera, Bake Epaile postua hartzeko interesatuta zeudenek izena emateko epea emanaz, agiria kalean jarri zen.

Inork izena eman ez duenez, eta lehenago zegoenak jarraitzeko prest dagoela agertu duenez, bere izendapena egitea proposatu da.

Izendapena, honela geldituko litzateke:

Bake Epailea: HERMENEGILDO IRAZU GOGORZA

Bake Epailearen Ordezkoa: MARTIN MENDIA ALTUNA

Fiskala: JOSE M<sup>a</sup> AROZENA AGIRREZABALA

Izendapena, aho batez onartu da.

#### GIB/HIES,DUN GIZAKIEN ESKUBIDE UNIBERTSALEN ADIERAZPENA:

Adierazpen hau, HIES-aren aurkako batzordeak izendatua eta editatua, eritzi publikoari zuzentzen jako GIB7HIES-dun gizakiek jasaten dabean deskriminazio eta ukapenen aurrean jendearen sensibilizazioa lortzearen. Bere edukin guztia Osasunaren Munduko Elkarteak (O.M.S.), Nazio Batuen Elkarteak (O.N.U.), Europako Ekonomi Elkarteak (C.E.E.), UNESCO-k eta Nazioarteko Lanaren Elkarteak (O.I.T.), beste batzuen artean, egindako gomendioetan oinarritzen da.

HIESA beste gaixotasun bat da eta horrela den neurrian gizarteagatik barneratua izan behar da. Gaur egun, aldiz, gaixo hau jasaten dabenen aurkako ikara irrazionalak, aurre-eritziak, kolpaketak, gehiegikeriak eta eskubideen bortxaketen justifikapenerako erabilia da sarritan.

- 1.- GIB/HIES-dun gizakien eskubideak erasotzen dauzan edozein iharduera eta mugatu, galerazi edo ukatu bai lanean, eskolan, gizarte aktibitateetan edota edozein motatako ihardueratan parte hartzea, gaixoak edo birusaren

portadoreak izateagatik, diskriminatzailea da eta zigortua izan behar da.

- 2.- Bereizkeria (diskriminazioa) lanean gudukatua izan behar da. HIES birusaren infekzioa ez da lan uztearen arrazoia, ezta kaleratzearen legezko kausa, eta langilea ez dago enpresariari jakinarazteko behartua infektatua dagoela.
- 3.- Ikasle edo irakasleari ezin joko ukatu eskolara joateko eskubidea ezta eskola ihardueratan parte hartzea ere, birusaren eramailea edo HIES gaixoa izateagatik.
- 4.- HIES-agatik ukatzea etxea edo alojamendua legearen kontrakoa da.
- 5.- GIB/HIESdun gizakiek mediku asistentziarako eskubidea dauka, beste hiritar guztiek bezala.
- 6.- Konfidentzialtasuna eta intimitaterako eskubidea zehazki bete behar da. Kutsatuaren baimenik gabeko birus-dun edo gaixotasunaren egoeraren edozein erreferentziak gaur eguneko dagoen legeak salatzen du.
- 7.- Birus-aren eramailearen izaera jakiteko edozein frogara, eta baita beste edozein osagile azterketa, baimenduak dira beti eta ezin daitezke egin afektatutaren baimenik gabe.
- 8.- Txerto baten faltaz, HIES-aren transmisioa ekidintzeko era bakarra prebentzio neurrien erabilpena da, hauek direlarik:
  - Xiringatxoak ez konpartitzea.
  - Aluetako eta/edo uzkoetako sarmenetan kondoia erabiltzea.
  - Ez irentzi edota ahoan eduki hazia edo alu jarria.
  - Haurduntasuna ekidin birus-aren eramailea izan ezker.

- 9.- Birus-aren jokaeragatik, gizaki askok ez dabe zertan jakin behar euraren eramaile izaera denbora epe bat pasatu arte, eta epe horretan besteenganatu daike. Beraz, neurri prebentiboen erabilpenean ardurea GIB/HIES-dun gizakiena bakarrik ez da, hiritar guztiena baizik; afektatuena eta ez afektatuena.
- 10.- GIB/HIES-dun gizakiek laguntzea, eurekaz lagunkide izatez gain gugaz ere lagunkide izateko erea da, eta euren eskubideak zaintzeak geureak ere zaintzea eta defendatzea ondorioztatzen dau, eta baita hiritar guztien eskubideak ere.

GIB/HIES-dun gizakien eskubide unibertsalen adierazpena eztabaidatu ondoren, aho batez onartzen da.

#### ALKATETZAREN DEKRETUAK:

Idazkariak, aurreko Bilkura ezkeroztik, gaur egundaino luzatu diren Alkatetzaren Dekretuen berri eman du:

JESUS AGIRREZABALA Jaunari, Opote-Buru terrenoetan dagoen txabola zaharra bota eta goien berria egiteko, ez zaio baimenik eman. Arrazoiak:

- Indarrean dauden Arau Subsidiarioen arabera, egin nahi den eraikuntzarako 8.000 m<sup>2</sup> izatea beharrezkoa da.
- Dagoen edozein eraikuntzatik, bide edo pistetatik 20 metroko distantzia utzi behar da.
- Gehieneko eraikuntza 0,2 m<sup>3</sup>/m<sup>2</sup> izan behar du.

M<sup>a</sup> KRUZ OTXOTORENA Andreari, Kale Nagusia 34ean duen etxebizitzaren sukaldean konponketak egiteko baimena eman zaio.

ROSARIO AROZENA ETXEBERRIA Andreari, Juanmiguel Haundi

baserriaren fatxada pintatzeko baimena eman zaio.

JESUS M<sup>a</sup> ESNAOLA Jaunari, Kale Nagusia, 16ean, Katarain Etxearen 1.go solairuan hormigoia bota eta sukaldea eta bainugela berriak egiteko baimena eman zaio.

JESUS AGIRREZABALA GOIKOETXEA Jaunari, Opote inguruan duen txabola konpontzeko baimena eman zaio, baldintza hauekin:

- Ate eta leihoak egurrezkoak izango dira.
- Teilatua, teile gorritz egingo da.
- Paretak, txuriz pintatuko dira.

HILARIO ZINKUNEGI Jaunari, Isastietan duen txabola haunditzeko ez zaio baimenik eman. Irtenbide bat bilatu asmoz, nahi izanez gero, zaharra bota eta berria egiteko baimena eska dezake, beti ere harrizkoa, teilatua teile gorritz eta ate eta leihoak egurrezkoak izan beharko luketelarik.

Hala ere, krokis batean azaldu beharko luke baita ere, txabolak izango lituzkeen neurri zehatzak.

LUIS OLASKOAGA Jaunari, Lizartzako Kale Nagusia, 25ean dagoen Etxea Erauzteko baimena eman zaio, Egitasmoa eta Udaleko Arkitektoaren txostena eta legeek zein hirigintzari buruzko Arauek ezartzen dutenaren arabera. Baldintzak:

- Obraren zuzendaritza arduraduna den zuzendaritza ahalmendunaren izendapena aditzera ematea, Udal honen aurrean.
- CN-130aren aldera egongo den hesitza txostenari eta horri dagokion Gipuzkoako Foru Diputazioaren Errepide Departamentuko baimenera dago meneratua.



- Azpiegitura, bidagarritasuna, eta antzerakoetarako Udaleko obra zerbitzuekin elkarlanean ekingo zaie erauzketa lanei.
- Aseguratu egingo dira uneoro egonkortasuna eta ondasunen eta hirugarrenen segurtasuna.
- Lizentzi hau, hirugarren baten Jabetza Eskubidea errespetatu eta horren kalterik gabe ematen da.

JOSE M<sup>a</sup> UGARTEMENDIA Jaunari, Gure Ametsa etxearen azpian dagoen ate haundia kendu eta beste txikiago bat egiteko, eta era berean, rejila bat edo leiho txiki bat egiteko baimena eman zaio.

Lizentzi hau, hirugarren baten Jabetza Eskubidea errespetatu eta horren kalterik gabe ematen da.

FELIX LULUAGA Jaunari, Plaza Ondo, 1 eta 2ko teilatua berritzeko baimena eman zaio.

ESTANIS AGIRRE Jaunari, Zumitza Baserrian sukaldeko konponketa, ekonomika aldatuz eta tximini berria egiteko baimena eman zaio. Baldintza: Tximinia lehengo tamaina berdinekoa izango da.

ANTONIO ZABALA GARMENDIA Jaunari, Martanea, 3. etxeko balkoiako leihoa aldatu, lehengo berdina jarriaz.

ARANTXA ARROSPIDE ARRATE Andreari, Zubiaurre beheera ezkerrean leiho berriak, aluminiozko txuriak jartzeko baimena eman zaio.

M<sup>a</sup> PILAR MIRANDA Andreari, Ainene Berri, 2. Ezkerreko bainugelako berrikuntza egiteko baimena eman zaio.

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

Bilkurako deia zabaldu ondoren, erabakitzeko oso presazkoak diren bi gai sortu dira:

- 1.- Herri Erabat Euskaldunetako Tipologiarako Udal Agintarauei 1581/89 senentziari errekurtsua tartejartzea.
- 2.- Aurreko asteko PNvek emandako prentsaurrekoaren bidez erasoaldia.

Bere proposamena, gai hauek, urjentziz tratatzea.

Proposamena, aho batez onartu da.

HERRI ERABAT EUSKALDUNETAKO TIPOLOGIARAKO UDAL AGINTARAUAREN 1581/89 SENTENTZIA:

IKUSIZ, Lizartzako Udalak herri erabat euskaldunetako tipologiarako Udal Agintaraua onartzearen aurka Estatuko Administrazioak jarraitutako 1581/89 zenbakidun administrazio ihardunbidean jasotako sententzia; 1.988ko Abenduaren 7ko osoko bilkuran lehendabiziz, eta hurrengo Maiatzaren 17an behin betiko onartua.

IKUSIZ, Auzian Estatuko Abokatuarengandik, baliogabetasuna edo, bestek ezean, Agintarauaren baliogabetasuna, orohar, eskatzen zela.

IKUSIZ, Sententziak, errekurtsu hau zati batean onartzean duela, 4, 5, 7, 14, 17, 19, 20, 21, 22, 24, 26, 27, 34, 39, 40, 42, 43, 44 eta 45 artikuluen erabat eta berezko baliogabetasuna adierazten duelarik.

ONDORIOZ, Apirilaren 30ko Premiazko Epaibidezko Berrikuntza Neurrien 10/1992 Legeak emandako idazkeran indarrean dagoen Administrazioarekiko Auzi Legemendiaren 93. artikuluan esandakoari jarraituz, baliogabetze eskea aurkeztu daitekela, aipatutako sententziaren aurka (mila bederatziehun eta laurogeitamabiko abenduaren hogeitalau egunean jarrita eta mila bederatziehun eta laurogeitamahiruko urtarrilaren hogeiean jakin erazia).

KONTUTAN IZANIK.- Udalaren beharra, Toki Jaurbideen Oinarrien araupetzailea den, 7/1985 Legearen 68.1 artikulua edukia.

KONTUTAN IZANIK.- Udalbatzaren Osoak dituen ahalmenak, Toki Jaurbideen Oinarrien araupetzailea den, 7/85 Legearen 22. j artikuluan jarritakoaren arabera.

Guzti honen arabera, Udalbatza Osoari proposamen hau onartzeko eskatzen zaio:

- 1.- Lizartzako Udalak herri erabat euskaldunetako tipologiarako Udal Agintarua onartzearen aurka Estatuko abokatuak aurkeztutako administrazioarekiko auzibidezko errekurtsua zati batean onartzen duen, mila bederatzehun eta laurogeitamabiko abenduaren hogeitalauko datarekin Administrazioarekiko Auzitarako Sailak diktatu eta mila bederatzehun eta laurogeitamahiruko urtarrilaren hogeiean jakin erazitako sententziagatik, Administrazioarekiko Auzitarako Sailaren aurrean Baliogabetze Eskea aurkeztea.
- 2.- JUAN LANDA MENDIBE Jauna, ARANTZA MARTINEZ LARRAURI Andrea, PAZ OCHOA DE RETANA MOGELOS Andrea eta LUIS URKIZA UGARTE Jauna Abokatuei Udalaren letratu defentsa agindu.  
  
Auzitegietako prokuradore diren Madrideko ENRIQUE DE ANTONIO VISCOR Jauna eta ISABEL FERNANDEZ CRIADO BEDOYA Andreari, Udal honen ordezkaritza agindu.
- 3.- Errekurtsu honetan behar izan daitezken edozein ekintzetarako, Udal honetako Alkate-Lehendakaria ahalmenu.

AURREKO ASTEKO PNVk EMANDAKO PRENTSAURREKOAREN BIDEZ ERASOALDIA

Jakingo duzuenez, aurreko astean erasoaldi saiakera zikin bat jasan behar izan dugu, Gipuzkoako PNVren eskutik.

Badirudi Tolosaldeako zenbait herri txikitari ez indarririk, ez presentziarik ez edukitzeak min ematen diola eta horrek bultzaturik, herri hauetako giroa nahasten ahalegintzen hasia da iadanik.

Gure Udalari dagokionez, ez dira oso ondo informatu, esandako guztia GEZURRA hutsa bait da eta hori edozein lekutan agertzeko eta demostratzeko prest gaude.

Guk garbi jokutzen dugu eta edozein akusazio egin aurretik ona izaten da lehendabizi bakoitzak bere etxera begiratzea eta ispiluan ikusitakoa besteei ez leporatzea.

Egindako akusazioak oso grabeak direla deritzogu. Beraz, Udal Pleno honi zera eskatu nahi genioke:

Aldarrikatu dezala esandako guztia GEZURRA hutsa dela eta guztiok prest egon gaitzela dagokion leku eta garaian baieztapen hori defendatzeko.

Proposamena, aho batez onartu da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamaikak direnean.